

Aterpolis

Betidanik hainbat fenomeno klimatiko eta gatazka politiko egon dira, esaterako Valentziako dana, Zamorako suteak eta Palestina eta Israelen arteko guda, besteak beste. Honen ondorioz, hainbat familiek haien etxeak etab. galdu dituzte. Haiei laguntzeko eta egoera hain txar batean bizitzea sahiesteko, *Aterpolis* proiektua sortu dugu. Proiektu hau etxebizitza tenporalak eraikitzean datza, material ekologikoak eta berriztagarriak erabiliz.

Horri dagokionez, gure produktuak hainbat arazo konpontzeko lagundu ditzake. Adibidez, Afganistan ekialdeko lurrikararen ondoren, lehentasun humanitarioa da babeslekuak azkar, seguru eta modu jasangarrian berreraikitzea. Testuinguru horretan, gure produktua irtenbide ezin hobe da kaltetutako komunitateen berehalako eta epe luzeko beharrei erantzuteko.

Horrekin, jendeak ez du baldintza txarretan edo kalean lo egiten egon beharko, bizitzen ari diren egoerak konpondu arte. Gainera, gure produktua berrerabilgarria da, hau da, familia batek edo pertsona-talde batek gure produktua behar izateari uzten dionean, beste familia bati laguntzeko erabiliko da, eta horrela hurrenez hurren.

Eraikuntzari dagokionez, gure adreilu sistema erraz erabiltzekoa da, eta horri esker, kaltetuta izan den pertsona batek, laguntza minimoarekin, denbora gutxitan beraien etxebizitza tenporala eraikitzeko gai izango gara. Ez da behar ez eraikuntzan esperientziarik, ezta tresna konplexurik ere, eta horrek aukera ematen du azkar jarduteko, sarbide zailak dituzten lekuetan baita ere.

Adreilu piezak lego modukoak dira, eta oso erraz eta modu seguru batean elkartzen dira. Horrela, egoera zailetan eta larrialdi egoeretan, denbora batez bizitzeko etxe egokiak eskaintzen ditugu, pertsonak babestuta egon daitezen etxebizitza iraunkorrago bat lortu arte. Gure helburua da inor ez geratzea babesik gabe, eta momentu gogorretan laguntza eraginkorra ematea.

Nahiz eta gure sistemaren helburu nagusia irtenbide azkar eta aldi baterako bat eskaintzea izan, adreiluak sortzeko materialak oso sendoak eta iraunkorrak dira, eta horri esker, etxea denborarekin handitu edo sendotu daiteke beharrezkoa izatekotan. Horrek esan nahi du etxe hauek pixkanaka-pixkanaka egitura egonkor eta iraunkorrago bihurtu daitezke, pertsona kaltetuek egoerara egokitu ahal izateko. Era berean, sistema erraz egokitzen denez, kostuak murrizten dira epe luzera eta hondakinik gabe amaitzeko aukera ematen du, larrialdiaren ondoren baliabideak aprobetxatuz.